

# IZAR, 100 años de innovación industrial en Bizkaia

De las ballestas para carruajes a las brocas para el Airbus

# IZAR, Berrikuntza industrialeko 100 urte Bizkaian

Gurdiatarako baleztetatik Airbuserako barautsetara



1910  2010

# IZAR, 100 años de innovación industrial en Bizkaia

De las ballestas para carruajes a las brocas para el Airbus

# IZAR, Berrikuntza industrialeko 100 urte Bizkaian

Gurdiatarako baleztetatik Airbuserako barautsetara



**Edita / Argitaratzailea / Publisher / Éditer**

IZAR CUTTING TOOLS, SAL

**Texto / Testua / Text / Texte**

Francisco Javier Illarramendi Lizaso

**Fotografías / Argazkiak / Photos / Photographier**

IZAR CUTTING TOOLS SAL / Txapo Creativos / Francisco Javier Illarramendi Lizaso

**Diseño / Diseinua / Design / Conception**

Nemo estudio s.l

**Traducción / Itzulpena / Translation / Traduction**

Elhuyar Fundazioa

**Imprenta / Inprimategia / Press / Imprimerie**

Vascograf s.l

**Depósito legal:** BI-1593/2010

Queda prohibida la reproducción total o parcial de este libro, ni su incorporación a un sistema informático, ni su transmisión en cualquier forma o cualquier medio, sea éste electrónico, mecánico, por fotocopia, por grabación u otros medios, sin permiso previo y por escrito del editor.

Debekatuta dago liburu hau osorik edo partzialki erreproduzitzea, sistema informatiko batean sartzea eta edonola edo edozein euskarritan —elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa edo bestelakoa— transmititzea, argitaratzaileak aldeztu aurretik horretarako baimen idatzirik eman ez badu.





# 1910 2010

**100 años fabricando calidad** 100 urte kalitatea ekoizten  
100 years of quality manufacturing **la qualité depuis 100 ans**





## “EL FUTURO EN NUESTRAS MANOS”

Todavía recuerdo con nitidez aquella primera entrevista con Horst previa a mi incorporación a IZAR, cuando le pedí conocer el taller antes de tomar una decisión acerca de mi incorporación a este proyecto. Verdaderamente quedé impresionado en esa primera visita.

Mi trayectoria profesional previa me había permitido conocer muchas otras fábricas, principalmente en el sector de la herramienta manual, tanto en Euskadi como a nivel internacional, entre ellas varias en EEUU. La mayoría de ellas disponían de modernas instalaciones, pero como una vez tuvo ocasión de transmitirme un importante cliente italiano, no se percibía cariño por la herramienta, ni por el trabajo realizado.

IZAR me impactó por la antigüedad de sus instalaciones y las duras condiciones de trabajo en muchos de sus procesos, pero una vez se superaba la impresión que causaba aquella neblina persistente que dificultaba la vista y empapaba el suelo de aceite, podía observarse la fuerza que transmitían sus personas.

Personas que trabajaban con tensión, con ganas, que aportaban todo lo que podían y que en aquellas duras condiciones, eran capaces de fabricar herramientas de calidad, pero que al tiempo, se sentían impotentes sobre el destino de esas herramientas una vez traspasada la barrera de la fábrica.

Fue la esperanza que esas personas depositaron y la solidez personal y profesional de Horst, a quien tanto debo, lo que me motivó a aceptar este reto.

Durante estos años, ha habido de todo, muchas alegrías y algunos sinsabores, pero sobre todo, ha habido trabajo, mucho trabajo. No podría llevar la cuenta de las horas trabajadas, ni de las millas de avión viajadas, pero si sé, que todas y cada una de ellas han merecido la pena.

Hoy, vivimos con naturalidad el privilegio de disfrutar de las modernas instalaciones de Boroa, un referente a nivel internacional, y de trabajar en una empresa con un enorme reconocimiento en el mercado. Sin embargo, es solo cuando nos detenemos a observar de donde venimos y las dificultades que hemos debido superar hasta llegar hasta aquí, cuando todo ello adquiere su pleno significado.

Desde la perspectiva de lo logrado en estos años, solo me queda dar las gracias, gracias en primer lugar a los clientes que confiaron en nosotros, cuando no era fácil confiar y nos ayudaron a enfilar la senda del crecimiento basada en la calidad y en el servicio, pero sobre todo en la confianza y en sólidas relaciones personales.

Gracias también a los proveedores, aliados en este viaje, que todavía no hace mucho, asumían riesgos importantes al trabajar con nosotros y gracias a las instituciones por el cariño y el apoyo que siempre nos han dispensado.

Finalmente, gracias sobre todo, a todas las personas que forman parte de este gran proyecto; muchas de ellas trabajan en Fábrica, otras fuera, formando parte de nuestros equipos comerciales, algunas no están ya con nosotros, otras incluso no están aquí todavía, pues sabemos que nuestro proyecto cumple 100 años, pero queremos cumplir muchos más todavía.

Si algo tenemos claro en IZAR hoy, es que nadie nos regalará nada, pero también que nuestro futuro depende más de nosotros mismos que nunca y para ello debemos aportar valor a nuestros clientes y a nuestras personas, siendo respetuosos con nuestro entorno.



**Carlos Pujana**

Director Gerente, Amorebieta, 25.05.2010

## **“ETORKIZUNA GURE ESKU”**

Gogoan dut oraindik, argi eta garbi, ni IZARen sartu aurretik Horst-ekin izandako lehen elkarrizketa hura, proiektu honekin bat egiteari buruzko erabakia hartu aurretik lantegia ikustea eskatu nionekoa. Egia esan, liluratuta geratu nintzen lehen bisita hartan.

Aldez aurreko nire ibilbide profesionalak beste lantegi asko ezagutzeko aukera eman zidan, eskuzko erremintaren sektorekoak batez ere, bai Euskadin, bai nazioartean, tartean AEBko batzuk. Haietako gehienek instalazio modernoak zituzten baina, bezero italiar garrantzitsu batek halako batean adierazi zidanez, ez zen ez erremintarekiko ez lanarekiko maitasunik sumatzen.

IZARek zirrara eragin zidan, instalazio zaharrak eta hango prozesuetako askok zituzten lan-baldintza gogorak ikusita, baina ikusmena zailtzen zuen eta zorua olioiz bustitzen zuen laino iraunkor hark sortutako inpresioa gaindituta, pertsonak igortzen zuten indarra ikus zitekeen.

Pertsona haiek tentsioz lan egiten zuten, gogoz, ahal zuten guztia ematen zuten eta, baldintza gogor haietan, gai ziren kalitatezko erremintak ekoizteko; aldi berean, ordea, ezintasuna sentitzen zuten lantegiko mugak zeharkatu ostean erreminta haien patua zela eta.

Pertsona haiek jarritako itxaropenak eta hainbeste zor diodan Horst-en sendotasun pertsonal eta profesionalak bultzatu ninduten desafio hau onartzera.

Urte hauetan, denetik izan dugu, poz ugari eta nahigabe batzuk baina, batez ere, lana izan dugu, lan asko. Ezin izango nuke lanean emandako ordu-kopurua zehaztu, ezta hegazkinez egindako kilometroena ere, baina badakit horietako bakoitzak eta guztiek merezi izan dutela.

Orain natural ikusten dugu nazioartean erreferentzia diren Boroako instalazio modernoek gozatzeko pribilegioa, eta merkatuan ospe ikaragarria duen enpresa batean lan egitea. Alabaina, nondik gatozen eta honaino iristeko gainditu behar izan ditugun zailtasunak gogoratzeko gelditzen garenean hartzen du guztiak erabateko esanahia.

Urte hauetan lortutakoaren ikuspegitik, eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen. Eskerrik asko, lehenik, guran konfidantza izan zuten bezeroei, konfidantza izatea gauza erraza ez zenean eta hazkundearen bidea hartzen lagundu zigutenean, kalitatean eta zerbitzuan oinarrituta baina, batez ere, konfidantzan eta harreman pertsonal sendoetan.

Eskerrik asko, halaber, hornitzaileei, bidaia honetan lagun izan ditugunei; izan ere, duela gutxi arte arrisku handiak bereganatzen zituzten gurekin lan egitean; eta eskerrik asko erakundeei, beti erakutsi diguten maitasunagatik eta eman diguten sostenguagatik.

Azkenik, eskerrik asko bereziki proiektu handi honen partaide diren gizon-emakume guztiei. Horietako askok fabrikari egiten dute lan; beste batzuek, kanpoan, gure talde komertzialetan; batzuk ez daude jadanik gurekin; beste batzuk ez daude oraindik hemen... Izan ere, badakigu gure proiektuak 100 urte bete dituela, baina beste asko bete nahi ditugu oraindik.

Gauza bat ikusten dugu garbi IZARen gizon-emakumeok: inork ez digu ezer musu-truk emango, baina gure etorkizuna inoiz baino gehiago dago gure esku. Horretarako, balioa eman behar diegu gure bezeroei eta geure buruari, eta gure ingurumena zaindu.

**Carlos Pujana**

Zuzendari gerentea, Zornotza, 2010.05.25





## “UN LIBRO ESPECIAL PARA UN AÑO ESPECIAL”

Cuando animo a mis hijos a leer un libro siempre les digo que un libro te enseña, un libro te ayuda a sentir, es una invitación para que nuestra imaginación trabaje y siempre es un buen compañero con el que no te sentirás solo y pasarás un rato agradable.

En este “año especial” que celebramos el cumpleaños de nuestra empresa os invito a leer estas páginas que os presentamos. Os invito a recorrer página a página 100 años de la historia de IZAR y darnos un paseo por la historia de Bizkaia.

Trabajar en una de las pocas empresas centenarias de nuestro entorno nos obliga a ser ejemplo para los jóvenes y no dejar que se olvide la trayectoria de esta empresa.

Cuando miramos hoy una broca o cualquiera de los productos que fabricamos puede parecer algo simple y frío fabricado con acero. Pero en este libro descubrimos que la fabricación y la evolución de nuestras herramientas de corte han servido para que muchas personas se hayan formado, crecido y forjado un futuro.

Leer estas páginas nos invita a recordar de dónde venimos, conocer que somos una empresa sólida y de gran personalidad pero, a la vez, darnos cuenta que somos una empresa con planes de futuro. Os invito a todo aquel que se anime a ojear este libro, a leerlo con cariño y espero que a los trabajadores que hoy formamos parte de la plantilla de IZAR nos sirva para que aumente nuestra motivación e implicación en la empresa.

Durante estos meses, y gracias a este libro, he tenido la oportunidad de hablar con ex trabajadores de IZAR que me han enseñado que sentir orgullo de trabajar en IZAR es posible y merece la pena. También he sentido un poco de nostalgia, pues hablando y recordando nuestra historia hemos recordado a compañeros que hoy no están con nosotros pero formaron parte del equipo humano de IZAR y que sintieron su estrella como propia. Me gustaría en nombre de todos ellos nombrar aquí a una persona que estoy segura que estaría hoy todavía orgullosa de formar parte de nuestro proyecto: Juan Pineda, que fue durante muchos años representante de la zona de Zaragoza, un hombre que nos demostró que es compatible trabajar para alcanzar un beneficio, ser fiel a una marca y ser un gran amigo. Son valores que, si los potenciamos siendo como somos hoy una empresa de economía social, conseguiremos avanzar en lo que llamamos cohesión social.

Bienvenidos a IZAR.

**M.Feli Arrizabalaga**

Pta. Consejo Administración, Amorebieta, 25.05.2010



## **“URTE BEREZIA, LIBURU BEREZIA”**

Seme-alabak liburu bat irakurtzera animatzen ditudanean, beti esaten diet liburu batek irakatsi egiten duela, sentitzen laguntzen duela, gure irudimena abian jartzeko lagungarria dela eta beti dela bakarrik ez sentitzeko eta une atseginak pasatzeko lagun ona.

Gure enpresaren mendeurrena ospatzen dugun “urte berezi” honetan, aurkezten dizkizuegun orrialde hauek irakurtzeko gonbitea luzatzen dizuet. IZARen historiaren 100 urteak orrialdez orrialde ikusteko gonbitea da hau, eta baita Bizkaiko historian barrena ibilbidea egitekoa ere.

Gure inguruan ehun urte bete dituzten enpresa bakanetako batean lan egiteak gazteentzako eredu izatera behartzen gaitu, eta enpresaren ibilbidea ahazten ez uztera.

Barauts bat edo ekoizten ditugun produktueto edozein ikusten dugunean, altzairuz egindako gauza soil eta hotza iruditzen zaigu. Baina liburu honetan aurkituko duzue, gure ebaketa-erreminten fabrikazioari eta bilakaerari esker, pertsona askok prestakuntza jaso, ikasi eta etorkizuna eraiki ahal izan dute.

Orrialde hauek irakurtzeak nondik gatozen gogorarazten digu, enpresa sendoa eta nortasun handikoa garela ezagutzeko aukera ematen digu eta baita, aldi berean, etorkizunerako planak dituen enpresa garela ohartarazten. Liburuari begirada bat egitera animatzen den orori gonbitea luzatzen diot maitasunez irakur dezan, eta espero dut orain IZARen langilegoa osatzen dugun beharginoi gure motibazioa eta enpresan dugun inplikazioa areagotzeko balio izatea.

Liburu honi esker, hilabeteotan aukera izan dut IZARen langile ohiekin hitz egiteko, eta IZARen lan egitearen harrotasuna sentitzea posible dela eta merezi duela erakutsi didate. Halaber, nostalgia pixka bat sentitu dut; izan ere, hitz eginez eta gure historia gogoratuz orain gurekin ez dauden baina IZARen taldekide izan ziren lankideez oroitu gara, enpresaren izarra euren balitz bezala sentitu zuten haietaz. Haien guztien izenean, pertsona bat aipatu nahi nuke hemen, gure proiektuaren kide izateaz harro egongo litzatekeena, ziur: Juan Pineda, urte askotan Zaragoza aldeko ordezkaria izan zena, irabazia lortzeko lan egitea, marka bati fidela izatea eta lagun handia izatea bateragarriak direla erakutsi zigun gizona. Balio horiek bultzatzen baditugu —hala egin behar dugu, ekonomia sozialeko enpresa garenez—, “gizarte-kohesioa” deitzen dugun horretan aurrera egitea lortuko dugu.

Ongi etorri IZARera.

***M.Feli Arrizabalaga***

Administrazio-kontseiluko lehendakaria, Zornotza, 2010.05.25





## IZAR, 100 años de innovación industrial en Bizkaia

De las ballestas para carruajes a las brocas para el Airbus

## IZAR, 100 urte Bizkaiko industria berrituz

Gurdientzako baleztetatik Airbusarentzako barautsetara



## IZAR, 100 años de innovación

En nuestro mundo industrial y empresarial la palabra innovación se asocia comúnmente a investigación y desarrollo y evoca soluciones nuevas. Una apreciación razonable ya que las innovaciones más radicales y revolucionarias surgen de las unidades de I+D. No obstante, la innovación aparece siempre que se produce un cambio de mejora, y es frecuente que esto ocurra cuando una empresa quiere aumentar su calidad y competitividad o necesita superar una crisis.

Testigo del despegue y desarrollo de la industria metalúrgica en Bizkaia en el siglo XX, Izar ha alcanzado la dignidad de empresa centenaria porque ha cambiado y se ha reinventado siempre que ha sido necesario.

La compañía se presentó en sociedad a comienzos del siglo XX, como Muelles y Aceros Eguzkia, moldeando barras de hierro fundido que, a golpe de maza, convertía en ballestas para carruajes. Nació en Zumarraga y pronto se estableció en Bilbao. Pocos años después de su creación, recibió una importante aportación financiera y se instaló en Amorebieta, ya con la denominación Larrinaga y Compañía.

La vocación industrial y la pasión por la metalurgia llevaron a Dionisio Larrinaga, fundador de la empresa germen de Izar, a centrar la producción en dos líneas que indudablemente apuntaban al futuro. Por un lado, comenzó a fabricar componentes de automoción en serie, poco tiempo después de que Henry Ford pusiera en marcha la cadena de montaje del Ford T. Por otro, empezó a producir herramientas de corte muy innovadoras en acero rápido, una aleación capaz de cortar a una velocidad cinco veces superior a la de los aceros comunes, fabricando brocas de mayor durabilidad, que respondían a los nuevos requerimientos derivados de la generalización del uso del taladros eléctricos.

## IZAR, 100 urte berrikuntzan

Gure enpresa- eta industria-munduan, "berrikuntza" hitza ikerketarekin eta garapenarekin lotu ohi da, eta irtenbide berriak iradokitzen ditu. Zentzuzkoa da hori; izan ere, berrikuntzarik erabatekoenak eta iraultzaileenak I+G unitateetan sortzen dira. Hala ere, hobekuntzaren bat izaten denean agertzen da beti berrikuntza, eta askotan enpresak kalitatea eta lehiakortasuna areagotu edo krisia gainditu nahi duenean gertatzen da hori.

XX. mendean Bizkaiko industria metalurgikoak izan duen gorakadaren eta garapenaren lekuko izanik, mendea bete duen enpresa izateko ohorea lortu du IZARek, beharrezkoa izan den guztietan aldatu eta berriro abian jarri delako.

XX. mendearen hasieran, Muelles y Aceros Eguzkia izenarekin sortu zen konpainia, eta burdinurtuzko barrak, mazo-kolpez moldekatuz, gurdientzako balezta bihurtzen zituen. Zumarragan sortu zen eta, handik gutxira, Bilbon finkatu zen. Sortu eta urte gutxira, diru-ekarpen handia eskuratu zuen eta Zornotzara jo zuen, Larrinaga y Compañía izenarekin.

Bokazio industrialak eta metalurgiगतिको zaletasunak produkzioa bi bidetatik eramatera bultzatu zuten Dionisio Larrinaga, Izar-en ernamuina zen enpresaren sortzailea. Bi bide haiek ziren, zalantzarik gabe, etorkizuna. Alde batetik, automozioiko osagaiak seriean fabrikatzen hasi zen, Henry Ford-ek Ford T-ren muntaia-katea martxan jarri eta denbora gutxira; bestetik, oso berritzaileak ziren ebaketa-erremintak ekoizten hasi zen, altzairu lasterraz, altzairu arruntak baino bost aldiz azkarrago ebakitzeko gai zen aleazioaz alegia, eta barauts iraunkorrako ekoiztu zituen, zulagailu elektrikoek erabilera orokortzeak ekarritako eskakizunak betetzeko modukoak.

La sociedad Larrinaga y Compañía pasó a llamarse Izar, nombre por el que se conoce hasta nuestros días, cuando en 1927 fue adquirida por Francisco Belausteguigoitia, quien sería el patrón en los siguientes cincuenta años. En la postguerra y los años de autarquía, Izar comenzó una etapa de crecimiento que duró varias décadas y en la que consiguió una posición de liderazgo en el mercado. Lo logró con renovaciones periódicas en su equipamiento tecnológico, la formación profesional continua de sus técnicos y trabajadores y ampliaciones en sus talleres, que llegaron a emplear a más de mil personas. Y cuando se oteaba el fin de autarquía que caracterizó a la dictadura franquista, se abrió a los mercados internacionales.

La calidad de sus productos y su posición en los mercados permitieron a Izar capear con cierta holgura la crisis económica de los setenta. No obstante, el cambio político y la carencia de un marco democrático estable para el desenvolvimiento de las relaciones laborales tuvieron una especial incidencia en la empresa, que vivió una etapa conflictiva que, de alguna manera, supuso el principio del fin de una era y el abandono del proyecto por parte de la familia Belausteguigoitia.

En 1988 Izar se partió en dos empresas. Acenor compró Izar Suspensiones y, seis años más tarde, cerró la planta de Amorebieta. El comprador de Izar Tool Machines no tenía proyecto empresarial y abandonó el barco cuando se vació el almacén. Los trabajadores se hicieron cargo de un buque con las bodegas vacías, sin recursos para adquirir materias primas. Comenzaba su particular odisea.

La aventura se inició en aguas bravas y el buque tuvo que iniciar su travesía en condiciones muy duras, con una tripulación sometida a esfuerzos extremos, en condiciones de racionamiento. Valió la pena. El tiempo demostró que el rumbo elegido llevaba a buen puerto.

Larrinaga y Compañiak Izar izena hartu zuen 1927an Francisco Belausteguigoitiak erosi zuenean—hura izan zen ugazaba hurrengo berrogeita hamar urteetan—eta halaxe gorde du gaurdaino. Gerra ostean eta autarkia-urteetan, Izar hazkunde-etapa batean sartu zen hainbat hamarkadaz, eta merkatuan lider-posizioa lortu zuen. Ekipamendu teknologikoan aldiro berrikuntzak eginez, bere teknikari eta langileen etengabeko lanbide-heziketaren bidez eta lantegiak handituz —mila lagunetik gora aritzen ziren lanean— lortu zuen lidergoa. Eta diktadura frankistak ezaugarri zuen autarkia amaitzeaz zela, nazioarteko merkatuetara zabaldu zen.

Produktuen kalitateari eta merkatuan zuen posizioari esker, Izar-ek nolabaiteko lasaitasunez egin ahal izan zion aurre 70eko hamarkadako krisi ekonomikoari. Hala ere, aldaketa politikoak eta lan-harremanak bideratzeko esparru demokratiko egonkorrik ezak eragin berezia izan zuten enpresan. Izan ere, etapa gatazkatsua izan zuen eta, hori zela eta, aro bat amaitu egin zen eta Belausteguigoitia familiak proiektua bertan behera utzi zuen.

1988an, Izar bi enpresatan banatu zen. Acenor-ek Izar Suspensiones erosi eta, sei urte geroago, Zornotzako lantegia itxi egin zuen. Izar Tool Machines-en erosleak ez zuen enpresa-proiekturik eta, biltegia hustu zenean, agur esan zuen. Langileek beren gain hartu zuten sotoak hutsik zituen ontzi hura, lehengaiak erosteko baliabiderik gabe. Hantxe hasi zen odisea berezi hura.

Itsaso zakarrean hasi zen abentura, eta ontziak bere ibilbideari oso baldintza gogorretan ekin behar izan zion, errazionamenduarekin ahalegin ikaragarriak egin behar zituen eskifaiarekin. Merezi izan zuen, hala ere. Denborak erakutsi zuen hautatutako norabideak portu egokira eramango zuela.

Se constituyó y reconstituyó como sociedad anónima laboral, primero fue Izarbarri y después Herramientas de Amorebieta. Abordó una profunda revisión de su estrategia comercial, de sus procesos de producción, de sus sistemas de calidad, y de la relación con su entorno social. Las cuentas de la empresa se sanearon antes de la entrada del tercer milenio.

La instalación de Izar en la nueva planta industrial del barrio zornotzarra de Boroa concluyó en 2008. Coincidiendo con el traslado, Herramientas de Amorebieta cambió su domicilio social y su denominación societaria, pasando a llamarse Izar Cutting Tools SAL.

En Izar Cutting Tools SAL trabajan dos centenares de personas, la mayoría socias que viven el proyecto como un compromiso colectivo. Se saben herederas del espíritu imbatible de generaciones anteriores, que supieron progresar con vientos favorables y mostraron gran capacidad de esfuerzo y sacrificio cuando los temporales arreciaban.

El XX fue un siglo de apogeo para la industria vizcaína no exento de convulsiones. Los ciclos económicos y los cambios tecnológicos favorecieron la creación de nuevas empresas y provocaron la desaparición de las que no se adaptaron. Izar ha cumplido cien años porque ha tenido muchas vidas. Con firmeza, ha salido fortalecida de sucesiones societarias, cambios políticos y sociales, revoluciones tecnológicas, y distintas etapas de auge y de crisis económica.

Las personas que han hecho memoria para recuperar sus recuerdos y que aparecen en este libro comparten un sentimiento de pertenencia a una misma historia empresarial, vivida en diferentes etapas y desde distintas responsabilidades. Pero todas tienen el orgullo de quienes han formado parte de un primer equipo. Gracias por sus recuerdos.

Lan-sozietate anonimo gisa eratu eta berrerratu zen enpresa; lehenbizi, Izar Barri izan zen, eta gero, Herramientas de Amorebieta. Estrategia komertziala, produkzio-prozesuak, kalitate-sistemak eta inguru sozialarekin zituen harremanak sakon berraztertu zituen. Enpresaren kontuak hirugarren milurtekoan sartu aurretik onbideratu ziren.

Zornotzako Boroa auzoko industrialde berrian 2008an instalatu zen erabat IZAR. Lekualdatzearekin bat, Herramientas de Amorebietak helbidea eta izena ere aldatu zituen; harrezkeroztik, IZAR CUTTING TOOLS SAL du izena.

IZAR CUTTING TOOLS SALen berrehun lagunek lan egiten dute, eta gehienek proiektua konpromiso kolektibotzat hartzen dute. Badakite aurreko belaunaldikoen espiritu menderaezinaren oinordeko direla. Espiritu horrekin, haizeak alde jotzen zuenean aurrera egiten bazekiten, eta ekaitza indartzen zenean, ahalegin- eta sakrifizio-gaitasun handia erakusten zuten.

XX. mendea Bizkaiko industriaren gorakadarena izan zen, gorabeherak izan baziren ere. Ziklo ekonomikoek eta aldaketa teknologikoek enpresa berriak sortzen lagundu zuten, eta egokitu ez zirenak desagerrarazi egin zituzten. IZARek bizitza asko izan dituelako bete ditu ehun urte. Irmo, sendotuta atera da sozietate-ondorengotza, aldaketa politiko eta sozial, iraultza teknologiko eta goraldi eta krisi ekonomikoetako garaietatik.

Oroitzapenak berreskuratzeko gogoratu, liburu honetan agertzen direnek enpresa-ibilbide bera egin izanaren sentimendua dute, eta hainbat garaitan eta hainbat erantzukizunekin bizi izan dute. Baina denek dute lehen mailako talde bateko kide izanaren harrotasuna. Mila esker oroitzapen horiengatik.



# La buena estrella de los Larrinaga

## Larrinagatarren izar ona

En los albores del siglo XX una buena estrella guió a los hermanos Larrinaga Arguinzoniz hasta un mercante a la deriva al que prestaron socorro. Segundo, como capitán, y Dionisio, como jefe de máquinas del buque rescatador, recibieron en recompensa un sustancioso capital, según las reglas internacionales establecidas en los Acuerdos de Amberes de 1885.


Segundo Larrinaga Arguinzoniz, nacido el 2 de junio de 1877, y Dionisio Larrinaga Arguinzoniz, nacido el 12 de diciembre de 1879, eran hijos de Guillermo Larrinaga y Catalina Arguinzoniz, propietarios de un molino en Amorebieta que tuvieron once hijos.

Los dos hermanos acostumbraban a navegar juntos en buques que surcaban rutas transoceánicas, y Dionisio aprovechaba todas las oportunidades a su alcance para mejorar sus

XX. mendearen hasieran, izar onak noraezean zebilen merkantzia-ontzi bateraino eraman zituen Larrinaga Arguinzoniz anaiak, laguntza eman ziezaioten. Segundok, kapitain gisa, eta Dionisiok, ontzi salbatzaileko makineriako buru gisa, dirutza jaso zuten saritzat, 1885eko Anberesko Akordioetan ezarritako nazioarteko araei jarraiki.

Segundo Larrinaga Arguinzoniz, 1877ko ekainaren 2an jaioa, eta Dionisio Larrinaga Arguinzoniz, 1879ko abenduaren 12an jaioa, Guillermo Larrinaga eta Catalina Arguinzonizen semeak ziren; gurasoak errota baten jabeak ziren Zornotzan, eta hamaika seme-alaba izan zituzten.

Bi anaiak elkarrekin nabigatu ohi zuten ozeanoan zehar ibilbideak egiten zituzten ontzietan, eta Dionisiok eskura zituen aukera guztiak baliatzen zituen mekanika eta metalurgiako ezagutzan





conocimientos de mecánica y metalurgia, su verdadera pasión.

Con el capital recibido por el rescate del buque, los Larrinaga decidieron abandonar los océanos y anclarse en tierra. Segundo construyó una casa en Amorebieta y actuó como capitalista en algunas iniciativas empresariales de la entonces floreciente industria vizcaína.

Dionisio, que tenía menor capital y un espíritu más industrial que su hermano mayor, se volcó en la metalurgia. Con su parte del rescate, tomó una participación societaria y asumió la dirección de la empresa en la que Izar hunde sus raíces: Muelles y Aceros Eguzkia, que ya en 1910 fabricaba muelles y ballestas en Zumárraga. Además, en 1920, instaló el Garaje Larrinaga en la calle Fernández del Campo de Bilbao.

sakontzeko, hura baitzen haren benetako zaletasuna.

Ontzi hura erreskatatzeagatik jasotako diruarekin, itsasoa utzi eta lehorrean finkatzea erabaki zuten larrinagatarrek. Segundok etxe bat eraiki zuten Zornotzan, eta bazkide kapitalista gisa aritu zen orduan Bizkaian gorantz zihoan industriako zenbait enpresa-ekimenetan.

Dionisiok anaiazaharragoak baino kapital txikiagoa zuen, baina industria-espíritu handiagoa, eta metalurgian sartu zen buru-belarri. Erreskatetik egokitu zitzaion zatiarekin, sozietate-partaidetza bat hartu zuten eta Izar enpresaren sorburua izan zen enpresaren zuzendaritza bere gain hartu zuten: *Muelles y Aceros Eguzkia* enpresarena, hain zuzen ere; 1910ean jadanik malgukiak eta baleztak fabrikatzen zituzten Zumarragako enpresa horretan. Gainera, 1920an, *Garaje*

Segundo Larrinaga pronto siguió los pasos de su hermano. Junto al empresario bergarés Ramón Idarreta compró el 10 de abril de 1923 a Muelles y Aceros Eguzkia, la empresa que dirigía Dionisio, un almacén situado en el número 5 de la calle Elcano de Bilbao, “*con todas sus instalaciones y mobiliario, existencias y derechos de arriendo de la lonja en el que está instalado*”, según reza el contrato de compraventa. Unos meses más tarde, los dos socios compradores traspasaron los derechos a la nueva Larrinaga y Compañía, antecesora de la actual Izar.

Larrinaga y Compañía fue constituida como sociedad mercantil en noviembre de 1923 con un capital social de 350.000 pesetas, aportado por cinco socios. Segundo Larrinaga Arguinzoniz, vecino de Amorebieta, y Ramón Idarreta Aguirre, vecino de Bergara, aportaron 100.000 pesetas cada uno, y Dionisio Larrinaga Arguinzoniz, vecino de Durango, Celestino Idarreta Aguirre, vecino de Bergara, y Enrique Goñi, vecino de Villareal de Urretxua, contribuyeron con 50.000 pesetas por socio.

Larrinaga y Compañía tuvo su primer domicilio social en la calle Elcano, número 5 de Bilbao, la dirección telegráfica era *larrina* y el teléfono 2304. Tenía por objeto la fabricación y venta de muelles y, en general, la compraventa de toda clase de hierros, metales, herramientas, artículos metalúrgicos y otros productos análogos.

Los socios establecieron que las ganancias y las pérdidas se repartirían en proporción al capital aportado por cada uno: dos séptimas partes para Segundo Larrinaga y Ramón Idarreta, respectivamente, y una séptima parte para cada uno de los otros tres socios. Además se fijaba una remuneración de 500 pesetas mensuales para Segundo Larrinaga, y para Enrique Goñi, un pago de 2.000 pesetas anuales más 4.000 pesetas para gastos de viaje y representación, y

*Larrinaga* jarri zuen Bilboko Fernandez del Campo kalean.

Segundo Larrinagak laster jarraitu zion anaiaren bideari. Bergarako Ramon Idarreta enpresaburuarekin batera, Dionisiok zuzentzen zuen Muelles y Aceros Eguzkia enpresari biltegi bat erosi zion 1923ko apirilaren 10ean, Bilboko Elkano kaleko 5. zenbakian kokatua, “*instalazio eta altzari, izakin eta lonjaren alokairu-eskubide guztiekin*”, salerosketa kontratuak dioenez. Hilabete batzuk geroago, bi bazkide erosleek gaurko Izar enpresaren aurrekoa izan zen *Larrinaga y Compañía* berriari eskualdatu zizkieten eskubideak.

Larrinaga y Compañía 1923ko azaroan eratu zen merkataritza-sozietate gisa, bost bazkidek jarritako 350.000 pezetako kapital sozialarekin. Zornotzako Segundo Larrinaga Arginzonek eta Bergarako Ramon Idarreta Agirrek ehuna mila pezeta jarri zituzten, eta Durangoko Dionisio Larrinaga Arginzonek, Bergarako Celestino Idarreta Agirrek eta Urretxuko Enrique Goñik, berriz, berrogeita hamarna mila pezeta.

Larrinaga y Compañiak Bilboko Elkano kaleko 5. zenbakian izan zuen lehen egoitza; helbide telegrafikoa *larrina* zen, eta telefonoa, 2304. Enpresaren eginkizuna zen malgukiak fabrikatzea eta saltzea, eta, oro har, mota guztietako burdin, metal, tresna, gai metalurgiko eta antzeko produktuak salerostea.

Bazkideek erabaki zuten irabaziak eta galerak bakoitzak jarritako kapitalaren arabera banatuko zirela: bi zazpiren Segundo Larrinaga eta Ramon Idarretarentzat, eta zazpiren bat, beste hiru bazkideetako bakoitzarentzat. Gainera, Segundo Larrinagari 500 pezetako hileroko soldata ematea erabaki zuten, eta Enrique Goñiri, berriz, 2.000 pezetako ordainsaria urtean, 4.000 pezeta bidaia eta ordezkaritza-



*Dionisio Larrinaga Arguinzoniz*

una participación del 3% en los beneficios. Los estatutos establecían que Dionisio Larrinaga cobraría 500 pesetas mensuales, más 2 céntimos por cada kilogramo de muelle nuevo de carruaje que se fabricara y un céntimo por cada kilogramo de muelle que se reparara.

La gestión de la sociedad, su representación judicial y extrajudicial, y el uso de la firma social quedaron reservadas a Segundo Larrinaga y a Enrique Goñi, de forma indistinta y solidaria para todos los actos de administración y mancomunadamente para los de dominio sobre los bienes inmuebles de la sociedad. Quedó establecido que todos los años, en diciembre, se practicaría un inventario y un balance de la sociedad, y se determinaría por mayoría de los votos de los socios el destino que debía darse al beneficio o las cantidades que había que ingresar para cubrir pérdidas en la caja social, así como el plazo en el que se debía hacer.

gastuetarako eta irabazien %3. Estatutuen arabera, Dionisio Larrinagaren soldata 500 pezeta zen hilabeteko, gehi 2 zentimo gurdientzat egiten zen malguki-kilogramo bakoitzeko, eta zentimo bat konpontzen zen malguki-kilogramo bakoitzeko.

Sozietatearen kudeaketa, ordezkaritza judiciala eta judizioz kanpokoak, eta enpresaren sinaduraren erabilera Segundo Larrinagaren eta Enrique Goñiren esku gelditu ziren, modu solidario eta bereizigabea, administrazio-ekintza guztietarako, eta denen adostasuna behar zen sozietatearen ondasun higiezinak buruzko erabakietarako. Urtero, abenduan, sozietatearen inbentario bat eta balantze bat egingo zirela erabaki zen, eta bazkideen botoen gehiengoaz zehaztuko zela irabazia zertan erabiliko zen, edota galerei aurre egiteko zer kopuru sartuko zen kutxa sozialean, eta zer epe zegoen horretarako.





La distribución del capital, el régimen de remuneraciones y la capacidad de uso de la firma dejan clara la función de cada socio: Segundo Larrinaga actuaba como capitalista y presidente del consejo; los hermanos Idarreta, empresarios bergareses vinculados con el sector del automóvil y el transporte por carretera, eran inversores, y Dionisio Larrinaga y Enrique Goñi se encargaban de la gestión directa como responsables de producción y de comercialización, respectivamente.

Desde sus inicios, Larrinaga y Compañía ofreció una amplia gama de productos: aceros y alambres ingleses; muelles para carros, automóviles, tranvías y ferrocarriles; herramientas, como limas, brocas y sierras para metales; y otros artículos, como tela esmeril, ejes para carros y cojinetes de bolas.

En 1924 Larrinaga y Compañía ya ofertaba productos en acero rápido, una aleación de 18% de wolframio, 4% de cromo y 0,75% de carbono, capaz de cortar a una velocidad cinco veces superior a la de los aceros comúnmente utilizados. Además, este acero mantenía su dureza al calentarse y permitía fabricar los productos en un tercio del tiempo habitual.

Kapitalaren banaketak, ordainsarien erregimenak eta sozietatearen sinaduraren erabilera-ahalmenak garbi erakusten dute zer funtzio zuen bazkide bakoitzak: Segundo Larrinaga bazkide kapitalista eta kontseiluko lehendakaria zen; Idarreta anaiak, automobil-industriarekin eta errepideko garraioarekin lotura zuten Bergarako enpresaburuak, inbertitzaileak ziren, eta Dionisio Larrinaga eta Enrique Goñi zuzeneko kudeaketaz arduratzen ziren, produkzioaren eta merkaturatzearen arduradunak baitziren, hurrenez hurren.

Hasieratik, Larrinaga y Compañiak produktu-sorta zabala eskaini zuen: altzairu eta alanbre ingelesak; gurdi, auto, tranbia eta trenetarako malgukiak; erremintak, hala nola, metaletarako limak, barautsak eta zerrak; eta beste zenbait gai, esaterako, esmeril-ehunak, gurdietarako ardatzak eta boladun kojinetekak.

1924an, Larrinaga y Compañiak altzairu lasterreko produktuak eskaintzen zituen. Aleazio bat zen, %18 wolframio, %4 kromo eta %0,75 karbonoa zituena, eta erabili ohi ziren altzairuek baino bost aldiz azkarrago ebaki zezakeen. Gainera, altzairu horrek gogortasunari eusten zion berotzen zenean, eta produktuak ohiko denboraren herenean egiten ziren.

## DEL CARRO AL AUTOMÓVIL

Cuando los Larrinaga empezaron a dar sus primeros pasos como fabricantes de ballestas todavía transitaban por las carreteras más carros y carruajes que automóviles. En 1906 comenzó el alquitranado de las carreteras y las grandes ciudades empezaron a experimentar con nuevos pavimentos en sus calles. Las calzadas ganaron en comodidad y resistencia y, gracias a los avances, la vida útil de los firmes pasó de tres a siete u ocho años. La Compañía de Asfaltos de Maestu construía las calles asfaltadas al precio de 22 pesetas el metro cuadrado, “*todos los gastos incluidos*”. En 1910, el coste medio de construcción de un kilómetro de carretera nueva era de 23.800 pesetas.

El ancestral carro resistió hasta los años veinte del siglo pasado, cuando se inició la sustitución de la tracción animal por la mecánica en el transporte público de viajeros por carretera. Las diligencias que habían resistido la competencia del tren fueron desapareciendo ante la llegada de los primeros autobuses interurbanos. Los carros de transporte de mercancías aguantaron unos años más porque coincidió una coyuntura alcista de la economía con la escasez de camiones, pero la nueva era mecánica llegaba con una fuerza que no tardaría en desalojar de las carreteras a todo tipo de carruajes, que ya constituían un problema, pues sus ruedas metálicas se clavaban en el pavimento dañando enormemente el firme. Un estudio de 1924 reveló que más de 28.000 km de carreteras -la mitad de la red- estaban en mal estado.

La mejora de la red de carreteras fue paralela al aumento de las matriculaciones de automóviles. En 1900 se matricularon tres automóviles en el Estado español; diez años después, 999, y una década más tarde, 12.017. Al comienzo de la década de los treinta circulaban menos de 200.000

## GURDITIK AUTOMOBILERA

Larrinagatarrak baleztak egiten hasi zirenean, errepideetan oraindik auto baino gurdi gehiago zeuden. 1906an, errepideetan galipota jartzen hasi ziren, eta hiri handietako kaleetan zoladura berriak probatzen. Galtzadak erosoagoak eta iraunkoragoak ziren hala, eta, aurrerapenei esker, zoruen balio-bizitza hiru urtetik zazpi edo zortzi urtera igaro zen. Maeztuko *Compañía de Asfaltos* enpresak kaleak asfaltatzen zituen, metro karratuko 22 pezetako prezioan, “*gastu guztiak barne*”. 1910ean, errepide-kilometroaren batez besteko eraikuntza-kostua 23.800 pezetakoa zen.

Gurdi zaharrak joan den mendearen 20ko hamarkadara arte iraun zuen, orduan hasi baitzen animalien trakzioaren ordezk mekanika erabiltzen errepide bidezko bidaiarien garraio publikoan. Trenaren lehiari aurre egin zioten zalgurdiak desagertzen hasi ziren hiriarteko lehen autobusak errepideetan agertu zirenean. Salgaiak garraiatzeko gurdiak urte batzuk gehiago iraun zuten, ekonomia gora zihonan garaian oraindik ere kamioi gutxi baitzeuden. Hala ere, aro mekaniko berria indartsu zetorren, eta laster baztertu ziren errepideetatik gurdi-mota guztiak, arazoak eragiten baitzituzten; izan ere, haien gurpil metalikoak zoruan iltzatzen ziren, eta kalte ugari sortzen zuten. 1924ko azterlan baten arabera, errepideen 28.000 km -sarearen erdia- egoera txarrean zegoen.

Errepide-sarea hobetzearekin batera, automobilen matrikulazioak gora egin zuen. 1900ean, hiru auto matrikulatu ziren estatu espainiarrean; hamar urte geroago, 999; eta hurrengo hamarkadan, 12.017. 1930eko hamarkadaren hasieran, 200.000 auto baino gutxiago zebiltzan errepideetan, eta autoa edukitzea oso jende gutxiren esku zegoen,



automóviles y tener coche estaba al alcance de muy pocos, pero nadie dudaba de que el futuro estaba en aquellos artilugios mecánicos.

La Hispano Suiza, fábrica de automóviles fundada en Barcelona en 1898, construyó en 1908 un coche económico, con nuevos motores de 15 CV y 30 CV, cuyo bastidor comenzó a emplearse pronto en la fabricación de furgonetas y del primer autobús de la firma. Sobre el mismo bastidor, de calidad contrastada, en 1909 construyó su primera gama de camiones de 2 y 4 toneladas de carga útil. La única diferencia respecto de los

baina inork ez zuen zalantzan jartzen etorkizuna tramankulu mekaniko haietan zegoela.

Bartzelonan 1898an sortutako *Hispano Suiza* automobil-fabrikak auto merke bat egin zuen 1908an, 15 ZP eta 30 ZPko motor berriak zituen, eta laster hasi ziren erabiltzen haren xasisa furgonetak eta enpresaren lehen autobusak fabrikatzeko. Kalitate frogatuko txasis harekin, lehen kamioiak egin zituen 1909an, bi eta lau tonako karga erabilgarrikoak. Autobusekin zuen alde bakarra zen, karrozeriaz gainera, beste desbiderketa erantsiko sistema bat zuela,





autobuses, además de la carrocería, consistía en un diferente sistema de desmultiplicación añadida, mediante cadena de transmisión, que aumentaba su potencia y limitaba la velocidad a unos 15 Km./hora. En 1917, La Hispano Suiza construyó una nueva fábrica en Guadalajara, que se dedicó a la producción de camiones, sobre todo el modelo militar 30/40 CV para la guerra de África, y que ofrecía carrocerías especiales: volquetes de basura, regadores, autobombas de bomberos...

El Ford T, diseñado por Henry Ford, salió al mercado el 11 de octubre de 1908. Con motor de cuatro cilindros y tan sólo 20 caballos de potencia alcanzaba la velocidad de 71 kilómetros por hora, pesaba 1.200 kilos y consumía un litro de combustible cada cinco kilómetros. Ford introdujo la cadena de montaje para el modelo T, logrando rebajar en Estados Unidos su precio inicial de 850 dólares hasta los 360 dólares. El Ford T era un vehículo barato para la época, fiable, de mecánica sencilla y fácil de reparar. Entre 1911 y 1925

transmisio-kate bidezkoa, haren potentzia areagotu eta abiadura 15 km/h-ra mugatzen zuena. 1917an, Hispano Suizak beste lantegi bat ireki zuen Guadalajaran. Kamioiak egin zituzten han, batez ere 30/40 ZPko modelo militarrek, Afrikako gerrarako, eta karrozeria bereziak ere eskaintzen zituen: zabor-iraulkiak, ureztatzaileak, suhiltzaileen autoponpak...

Henry Ford-ek diseinatutako Ford T autoa 1908ko urriaren 11n merkaturatu zen. Lau zilindroko motorra eta 20 zaldi-potentzia besterik ez zituen, 71 km/h abiadura harrapatzen zuen, 1.200 kilo pisatzen zuen eta erregai litro bat behar zuen bost kilometro egiteko. Ford-ek muntaia-katea osatu zuen T modelorako eta, hala, hasierako prezioa 850 dolarretik 360 dolarreraino jaitsi ahal izan zuen Ameriketako Estatu Batuetan. Ford T autoa ibilgailu merkea zen garai hartarako, baita fidagarria ere, mekanika sinplekoa eta konpontzen erraza ere. 1911-1925 bitartean, Ford-ek muntatze-plantak jarri zituen Ingalaterran, Argentinan, Frantzian, Danimarkan, Alemanian, Austrian, Hego Afrikan

Ford montó plantas de ensamblaje en Inglaterra, Argentina, Francia, Dinamarca, Alemania, Austria, Suráfrica y Australia. Hasta 1927, año en que dejó de fabricarse, se vendieron 15 millones de coches de este modelo en todo el mundo.

En este contexto de desarrollo mundial de la industria del automóvil, Larrinaga y Compañía decidió ubicar en Amorebieta una fábrica de herramientas y componentes de automoción. La nueva empresa era una apuesta con futuro, hasta el punto que durante décadas fue una referencia básica para la economía de Amorebieta y de su comarca.

eta Australian. 1927ra arte, ekoizteari utzi zitzaion arte, modelo horretako 15 milioi auto saldu ziren mundu osoan.

Automobil-industriaren mundu-mailako garenaren testuinguru horretan, Larrinaga y Compañiak Zornotzan automozioko tresnen eta osagaien lantegia jartzea erabaki zuen. Enpresa berri hura etorkizunera begira egindako apustua zen, eta zenbait hamarkadatan Zornotzako eta eskualdeko ekonomiaren oinarritzko erreferentzia izan zen.



# Larrinaga y Compañía en Amorebieta

## Larrinaga y Compañía Zornotzan

En 1924, el municipio de Amorebieta se acercaba a los cinco mil habitantes, unas 1.500 personas vivían en el núcleo urbano, y el resto en las distintas pedanías agrícolas. El pueblo estaba bien comunicado por carretera con Bilbao, situado a unos 20 kilómetros, con San Sebastián y la frontera francesa, y con Gernika y la costa vizcaína.

La agricultura y la ganadería tenían un peso importante en la economía local. Básicamente se cultivaba trigo, patatas, maíz, hortalizas y frutas, además de plantas forrajeras para la alimentación del ganado.

El variado comercio de Amorebieta -que incluía confiterías, sastrerías, zapaterías, relojería, e incluso una tienda de caza y pesca- la convirtió, en competencia con su vecina Galdakao, en centro abastecedor de los pequeños municipios

1924an, Zornotzako udalerrak bost mila biztanle inguru zituen; 1.500 pertsona hirigunean bizi ziren, eta gainerakoak, nekazaritza-auzuneetan. Herria ongi komunikatuta zegoen Bilbao (20ren bat kilometrora), Donostia eta Frantziako mugarekin, eta baita Gernikarekin eta Bizkaiko kostaldearekin ere.

Nekazaritzak eta abeltzantzak pisu handia zuten bertako ekonomian. Funtsean garia, patatak, artoa, barazkiak eta frutak landatzen ziren, eta abereak elikatzeko bazka-landareak.

Zornotzako merkataritza askotarikoa zenez gozotegiak, jostundegiak, zapata-dendak, erloju-dendak, baita ehiza eta arrantzarako gaien denda bat ere, eskualdeko nekazaritza-udalerrri txikien hornitzaile bihurtu zen herria, ondoan dagoen Galdakaorekin batera. Bertako zerbitzuak landu samarrak ziren garai hartarako; izan ere, ostatu

*Exterior "Landaburu" Cruz II. — Bilbao*

# AMOREBIETA (ZORNOZA) VIZCAYA



agrícolas de la comarca. Sus servicios alcanzaban un cierto grado de refinamiento para la época, ya que, además de casas de comida y tabernas, tenía restaurantes y cinco cafés. La localidad contaba con profesionales como médicos, abogados y hasta notario.

La actividad industrial concentraba pequeños talleres de carpintería, calderería, instalaciones eléctricas y ferretería, y tenía como principales referencias la fábrica de acero Fernando Jáuregui y la de barnices Rovira.

La euforia económica que se inició en 1914 en Vizcaya con la Primera Guerra Mundial tocó fondo en 1919, año en que terminó la contienda y comenzó una grave crisis bursátil y un problema mundial de sobreproducción. La industria siderometalúrgica vizcaína había perdido los pedidos mundiales de los años de guerra y el mercado interior era débil. La situación social era muy tensa y, en 1922, ante la pretensión de los patronos de disminuir un 12% los salarios, los metalúrgicos hicieron una huelga que duró casi tres meses. Un año más tarde, las fábricas recuperaron la plena actividad y los salarios volvieron a subir. Volvió a trabajarse a destajo, con grandes beneficios para las empresas y con unos ingresos suplementarios para los trabajadores que, en algunos casos, igualaban el salario normal.

